

TXOKOLATEAREN PREZIOA

Txokolatea egiteko kakaoaz gain azukrea ere behar zen. Kakaoa eta azukrea ustiatu eta eraldatzeko jende asko behar izaten da. Aspaldiko garaietan esklaboek egiten zuten lan hori. XVI. mendean esklabuen trafikoa Juan de Oñate* konkistatzaileak edota Lukas Zabala oñatiarrak ere parte hartu zuten beste askoren artean.

Gaur egun esklabotza hori ere ematen da produktu horiek lortzeko eremuetan, baina beste modu batean: haurrak eta emakumeak bilketa-lanetan dihardute. Hauek analfabetoak dira, muturreko egoeretan egiten dute lan, soldata txikiegiak dituzte, bortxaketak ematen dira... Lan hauek Amerikan egiten ziren lehen eta denboran aurrera joan ahala, Afrikan ere egiten ziren.



Kakaoa eta azukrea ondo hazteko, baldintza zehatz batzuk behar ditu. Baldintza horiek ekuadorren inguruan dauden lurraldeetan ematen dira. Arreta jarriz gerro, konturatuko gara lur horien lurrek aberastasun asko dutela, baina diru aldetik oso herri pobreak direla.

Garai horretako Oñatiko aberastasun asko esklabuen lanari esker lortutakoa da.

“Tomar en posesión las tierras descubiertas, esclavizar a los pobladores, explotar los territorios, y ajusticiar a los indígenas que no reconozcan la autoridad del Papa, como máximo representante de Dios en la tierra”

